

B26

Lecu on bat da Escocia...

Ez da erraza testuaren edukia ziurtasunez azaltzea, baina, ulertu dugunaren arabera, jauntxoaren ahuldade edo koldarkeria salatu nahi du poemak: hain da koldarra non irudimena erabiltzen baitu ihes egin nahi duenetik (ziur aski soldaduskatik edo) ihes egiteko, hots, diru-truke lortu du enperadorearen lizentzia soldaduska ez egiteko.

Bederatzi silabako pareatuen segida da; bakoitiak libreak dira, errimarik gabeak, eta bikoitiek *-ia* errima dute, B29 poeman bezalatsu.

[1204r] Lecu on bat da Escocia,
 obeago da Venescia;¹
 ene aldeco lagunoni²
 elçæen³ çaco⁴ flauecia;⁵
 nay deban⁶ orduetaco
 andia dacar fantasia;⁷

5

¹ *Lecu on bat da Escocia*: Ahozko literaturan bezala, irudi ordezkaria izango litzateke bi bertso-lerro hauetakoa (B26: 1-2), gero, alde figuratiboan (B26: 3-4), irudi fokalari bidea ematen diona. Beste era batean esanda, lehenengo bi bertso-lerroetan aipatzen den egia bezain zalantzagabea da beste bietako baieztapena.

² *lagunoni*: *-oni* artikulua gisa eman dugu, izen sintagmari lotuta, baina erakusle interpretazioa ere izan lezake.

³ *elçæen*: ‘heltzen’; *heldu* aditzaren aditz-izena hemen baino ez dugu aurkitu Lazarragaren eskuizkribuan; honen ereduko aditzetan, ordea, bi formatako aditz-izenak daude: *galçæen* (A5: 4) / *galçaiten* (A24: 146), *sarçæen* (AL: 1145r) / *sarçaiten* (A17: 115)...

⁴ *çaco*: ‘zaio’; eskuizkribuan *z-* kontsonanteaz hasten den NOR-NORI adizki bakarra da, gainerakoetan *j-* baitago, are poema honetako B26: 7 lerroan ere (*jacan*). Tradizio idatzian, erdialde-mendebaldean, Mogel da *zako* forma dakarren lehenengoa (gipuzkerazko testuetan *z-* bakarrik darabil, eta bizkaierazkoetan bakarrik *j-*).

⁵ *flauecia*: ‘ahuldadea, koldarkeria’. Poema honetako *flauecia*, *fantasia*, *balentia* eta *licencia* artikulurik gabe datoz. Ez dirudi sintaxiaren edo izenen semantikaren araberrako azalpenik eman dakiokenik artikulua falta honi.

⁶ *deban*: ‘duen’; *deu-* moldeko **edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan, eta gainera poema gutxi batzuetan bildu dira: *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4), *deban* (B26: 5), *ezteu* (B30: 21), *deben* (B30: 22). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

⁷ *fantasia*: ‘irudimena’.

bosteun ducat⁸ costa jacan

baroeoni balentia,⁹

Emperadore jaunaganic

ecarricea¹⁰ licencia.¹¹

10

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

4 elçaen çaco] esk. *Elcaencaco*. 10 ecarricea] esk. *Ecaricea*.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B26 – Lecu on bat da Escocia...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

⁸ *bosteun ducat*: Bosteun dukat diru asko zen XVI. mendearen amaieran. Konparazio baterako, lau dukat aipatzen dira B5:101 bertso-lerroan, eta hori ere bazen zerbait. Filipe II.aren ondasunen inbentarioan, txilin-iratzargailu arrunt batek edo letoizko kriseilu batek balio dute lau dukat (*apud CORDE*): “4.748. Un despertador de latón, tosco, con su campanilla sin pesa. Tasado en cuatro ducados. 4.749. Un candilaton con pie y un cañón y mechero y encima una rosca, que sirve para el aceite. Tasado en cuatro ducados” (Izengabea, c. 1600, *Inventarios Reales. Bienes muebles que pertenecieron a Felipe II*). Esteban Garibairen oroitzapenen liburuan, larruz landuriko kutxatxo batek bi dukat balio ditu (*apud CORDE*): “Mandé tambien que se le hiziese una caxa guarnecida de cuero á su medida. Tráxola con la cruz en ella muy lindamente labrada, con ocho aldabillas bien curiosas, y costó dos ducados” (Esteban Garibai, c. 1594, *Memorias de Garibay*).

⁹ *balentia*: ‘balentria’; era ironikoan ulertu behar dela uste dugu, hain zuzen goragoko *flaquecia* harekin erlazonaturik.

¹⁰ *ecarricea*: ‘ekartzea’; partizipioaren gainean eratutako aditz-izen bakarra da eskuizkribuan. Tradizio idatzian oso berandu aurkitu ditugu halakoak.

¹¹ *licencia*: Ez du zehazten zerena edo zertarako den enperadoreak eman dion lizentzia, baina bere *flaquecia* ‘koldarkeria’ zela ulertzen badugu (hain zuzen B26: 8ko *balentia* horren haritik), pentsa liteke lizentzia soldaduskatik askatzeko edo izan zitekeela.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago